

l a b u r r e a n

Z I N E M A

■ Clint Eastwooden pelikula batek zabalduko du Nafarroako Unibertsitate Publikoko zinema zikloa

CLINT EASTWOODEN *White hunter, black heart* (Ehiztari zuria, bihotz beltza) pelikulak zabalduko du gaur Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) antolatutako zinema zikloa. Emaldia 17:00etan izanen da, aulategiko 117. ikasgelan. Datorren hiruhilabetekoan ostegunero bi film eskainiko dituzte NUPen. Gaur, Eastwooden pelikularekin batera, John Hustonen *Queen of Africa* (Afrikako Erregina) botako dute. Maiatza bitarte, Tim Burton, Alfred Hitchcock eta Steven Spielbergen lanak ikusi ahal izanen dira NUPen.

M U S I K A

■ Bilbao Orkestra Sinfonikoa Madrilen ariko da

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK (BOS) Madrilgo Arte Sacro jaialdian hartuko du parte gaur, San Jeronimo El Real elizan egingo den kontzertuan. Juanjo Menak zuzenduko du orkestra. Juan Crisostomo Arriaga konpositorearen *Stabat Mater* eta *O Salutaris hostia* lanak interpretatuko ditu BOSeK, eta kontzertua amaitzeko Mozarten *Koroatze Meza*. Orkestrarekin batera Bilboko Koral Elkarteko Abesbatza eta Assumpta Mateu sopranoa, Marina Rodriguez mezzosopranoa, Lluís Vilamajo tenorea eta Pau Bordas baxua ariko dira.

M U S I K A


■ Soneros del Changüi talde kubatarrek disko berria aurkeztuko du gaur iluntzean Getxon

GAUR 20:00etan hasiko da Algortako Gwendolyne aretoan Soneros del Changüi talde kubatarren kontzertua, dohai-nik izango dena. Musikari karibearrek *A Changüisea* izeneko diskoa aurkeztuko dute bertan, Gaztelupeko Hotsak etxearekin eta Mugarik Gabeko Musikariak GKErekin argitaratu dutena. Son kubatarren zatia da *changüi* delakoa, *suku-suku*, *son montuno* eta *guaracha* direlakoekin batera. Taldearen lehen diskoak hamaika kanta biltzen ditu, batzuk berriak eta beste batzuk tradizioetik datozenak.

B E R T S O L A R I T Z A

■ Saio politekin eman diote hasiera BBK Sariketeari

HERENEGUN eta atzo egin dira Markinan eta Igorren Bertsolari Gazteen VIII. BBK Sariketeako lehen saioak. Lea Artibaiko eta Durangoko taldeak aritu ziren lehen saioan, eta Arratiakoa eta Bilboko atzokoan. Lea Artibaiko eta Bilboko taldeek hartu dute aurrea «polito» garatu diren saioetan. Hurrengo saioak datorren asteartean eta asteazkenean egingo dira, Derioko institutuan lehena eta Bilboko Txurdinaga auzokoan bigarrena. Txorierrri eta Lea Artibai ariko dira Derion eta Bilbo eta Busturia Txurdinagan.



JOSU ETXEBARRIOSTE

Tren geltokia kultur gune. Bilboko Autonomiako tren geltokian kultur gunea ireki du Renfe konpainiak. «Bilboko kultur ibilbidean beste geltoki bat» izateko helburuarekin sortu da. Txetxu Berruezo argazkilariaren lanek inauguratu dute espazioa. Trena eta Bilbo dira tamaina handiko argazkiotan protagonistak. Argazkilariak atzo esan zuenez, «arkitektura, formak eta kolorearekin jolastu nahi izan dut».


Stefon Harris bibrafoi jolearen taldeak Donostian joko du gaur

Jazzaren talentu berri handienetakoa da 27 urteko musikaria

Erredakzioa / Donostia

Stefon Harris bibrafoi joleak zuzendutako laukoteak kontzertua eskainiko du gaur Donostiako Gazteszena aretoan. Jazz musikaren talentu berri handienetakoa da Harris, 27 urtekoa, eta historiako bibrafoi jole onenetakoen (Lionel Hampton eta Milt Jackson, kasu) oinordekotzat jotzen dute musikari eta kritikari askok.

DUELA bi urte eskas grabatu zuen Stefon Harrisek bere lehen diskoa bakarlarri gisa, *A cloud of red dust*. Grabazioak kritika ezin hobeak jaso zituen, eta azken urteetan artista berri batek kaleratutako lehen disko onenen artean sailkatu zuten. *Jazziz* aldizkariak talentu berri onena zela argitaratu zuen, eta *Down Beat*-ek etorkizuneko jazz izarrei eskainitako erreportaiaren barruan aipatu zuen.



EGUNKARIA

Stefon Harris musikaria.

Cassandra Wilson eta Steve Colemanekin

Kritikariak ezezik, jazz musikari ugari ere konbentzitu zuen Harrisen lanak. Horren lekuko da Cassandra Wilson abeslariak eta Steve Coleman saxofoi joleak —jazz zaleek ondo ezagutu eta miresten dituzten bi artistek— euren azken diskoetan *Traveling Miles* eta *The sonic language of Myth* bikainetan, parte hartzeko deitu izana 27 urteko musikari gaztea.

Haiekin lan egiteaz gainera bigarren diskoa atera du Harrisek, *Black Action*

Figure. Lehenengoaren «bila-kaera naturala» da disko berria, Harrisek azaldu duenez. Gauza bera errepikatze-ko gogorik ez izateaz gain, Harrisen beraren animo egoerari zegozkion faktoreek izan dute zerikusia bi diskoen arteko ezberdintasunean. «Lehen diskoa, nire bizitzara bakea ekarriko zuten filosofia irizpideen bila egindako bidaiaaren dokumentu moduko bat izan zen. Oso filosofikoa zen. *Black Action Figure* sortu genuenean, berriz, bolada alaia eta baikorra bizi

nuen. Askoz lasaiago nengoen, eta horrek markatzen du ezberdintasuna. Grabazioan une hori harrapatzen saiatu ginen. Bakarraldiak zuzendu gabe daude, piezak lehen aldian grabatuta daude, disko jostaria eta baikorra egin nahi genuen».

Diskoan parte hartu zuten musikarietatik Tarus Mateen baxu joleak bakarrik laguntzen du Harris. Orin Evans piano joleak eta Terreon Gully bateriak osatzen dute gaur, 20:30etan, Gazteszena aretoan joko duen taldea.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

31 x 33 mm

31 x 33 mm

31 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)
Eguna: 2.200
Astea (6 egun): 1.900
2 aste (12 egun): 1.600
Hilabetea (24 egun): 1.200

31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)
Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

Lete
itzulpenak
egokitzapenak
administrazioa • publizitatea
enpresak • filmak • liburuak
zuzenketak
Tel.: 943 515 346
Faxa.: 943 521 380

31 x 33 mm
MODULO
(Iparraldeak)
Eguna: 92 l.
Astea (6 egun): 85 l.
2 aste (12 egun): 72 l.
Hilabetea (24 egun): 57 l.

UDALEKUAK 2000
BEGIRALEAK
EZINBESTEKOAK 18
URTE EDO GEHIAGO
ETA BEGIRALE
IKASTAROA EGINA
IZATEA
DOKUMENTAZIOA:
(00.04.05 arte).
Argazki bat / ENA fotokopia bat
/ gure inprimakia beteta eta ber-
tako datuak egiaztatutik.
POSTAZ BIDLITAKOAK
EZ DIRA ONARTUOKO
NON/NOIZ: AIF Extremadura
kalea 7, beheak - Vitoria-Gasteiz.
(Astegunetan 16:30 - 18:30).

